

# ITXULAPIKOA

---

Ekintza edo joko hau, egiteko oso erraza da, etxetik edukiko dituzuen materialekin.

Zuen seme eta alabek ongi pasako dute gauzak sartu eta ateratzen, interes handia izaten dute honetan.

Beharrezko elementuak:

- Poteak eta gailera edo beste motatako lata. Bestela zapata kaxak ere erabili ditzakezue, ziur etxetik baten bat izango duzuela.
- Kaxetan sartzeko objektuak (kontserba poteen tapak, pintzak, kortxoak, tapoiak...) etxetik dituzuenak, eta arriskurik ekartzen ez dutenak, kontuz izkinekin, tamaina egokia...
- Pote edo kutxaren tapan kuter edo labana batekin zuloa egin, tamaina eta forma, sartzeko dituzuen elementuen arabera izan beharko da.

Aukera desberdinak dituzue:

- Argazkietan ikusten den bezala, pote desberdinak erabili
- Pote bakar bat eta tapa desberdinak, aldatzen joateko
- Pote edo kaxa bakarra, zulotxo desberdinekin

Prest duzuenean, zuen seme edo alabari aurkeztu, sartzeko objektuekin batera, jolastu eta esploratzeko momentua iritsi da!

Haurrak gauzak ahokatu ditzakeela deskubrituko du, bere garapenean aztarna utziko duen esperientzia sensoriala.

Ekintza honek motrizitate fina sustatzen du, hurrek objektuak modu zehatzean hartuko dituzte, hatz erakusle eta luzearen artean pintza eginez.

Honetaz gain, objektuaren iraunkortasunaren ulermena indartzen da. Bere arreta eta jakin-mina ekintzan jartzen dira eta begi-esku koordinazioa sustatzen da.

Oso gustura ibiliko dira, ikusiko duzue.

Erabilgarria izatea eta praktikara eramatea espero dugu.

Ongi izan

